



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

DIKTAMENA

Azkoitiko Baratze Ekologikoen kudeaketarako Araudia onartzekoa..

IKUSIRIK

- I. Azkoitiko Baratze Ekologikoen parkearen kokapena definiturik dagoela eta Altamira auzoan egitea aurreikusten dela.
- II. Proiektua hau Herritarren partaidetzako prozesua desberdinetan identifikaturiko eskaera dela.
- III. Ingurumen, Zerbitzu eta Partaidetzako teknikariak egin ditu kudeaketarako araudiari buruzko aldeko txosten teknikoa 2015eko martxoaren 11an.
- IV. Udal Kontu hartzaileak egin ditu araudiak eragiten duen kanonari buruzko azterketa eta txostena.
- V. Udal Idazkariak, egin du araudiari buruzko txostena.

AINTZAT HARTURIK

- I. Ingurumen, Zerbitzu eta Partaidetzako teknikariak egindako txostena.

GAIA: Azkoitiko Baratze Ekologikoen esleipen eta kudeaketarako araudia onartzea. Irizpenean txertatzeko txosten teknikoa.

LEKUA: AZKOITIA

ESKATZAILEA: Azkoitiko Udala

ZEHAZTAPIDETZA-EXPEDIENTEA: 45 2015

TXOSTENA-INFORME:

Azkoitiko Udalak, herrian baratza ekologikoan parkea martxan jarri nahi du. Egitasmo hau udalerriko giza talde guztiei zuzenduta dago, gazte zein heldu, erakunde zein elkarte, langabetu edo langile....

Proiektu honen **helburu nagusia** herritarrei **euren elikagaiak** lortzeko aukera eskaintzea da, hau guztia irizpide ekologikoei jarraituz eta bertako produktuak sustatuz.

Beste helburu batzuk ere lortu nahi dira:

- Nekazaritza ekologikoa sustatzea eta hedatzea
- Gizatalde ezberdinen arteko elkarbizitza eta harremanak sustatzea.
- Hau gazte eta helduak ingurunearekiko errespetuan hezteak.
- Aisialdi aktibo eta jasangarria bultzatzea.

HIRIGINTZA ETA GARAPEN IRAUNKORRA - URBANISMO Y DESARROLLO SOSTENIBLE

Tel . 943 857172 / Fax. 943 852140 - ofitek@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA - HERRIKO ENPARANTZA Z/G - 20720 AZKOITIA



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Herritarren artean produktu lokala, garaian garaiko eta ekologikoen kontsumoa bultzatzea.
- Nekazal kultura herriratzea ingurune urbano eta landatarren arteko distantziak ezabatuz.

Proiektua aurrera eramateko lursail egokiak identifikatu dira (Altamira auzoan) eta hauek erabiltzeko prozedura martxan jarri nahi da.

Lursailak honakoak dira:

1. Erreferentzi katastrala: 5680098
Jabetza: Azkoitiko Udala
Azalera: 2158,8m²
2. Erreferentzi katastrala: 5680073
Jabetza: Azkoitia Lantzen
Azalera: 2208,26m²

Araudia

Baratzaren erabilera arautzeko proposaturiko araudia definituriko helburuak betetzeko egokia ikusten da.

Datu ekonomikoak

Araudian erabiltzaile bakoitzari **hilean 5 €** ko kanona ezartzeko proposamena agertzen da eta kontuan hartu behar dugu 65 erabiltzaile egotea aurreikusten dela.

Baratza parkeak bere funtzionamenduan gastu batzuk sortzen ditu:

Baratza parkea sareko kidea izateak 4.570€ko kuota bat suposatzen du.

Baratza parke sarea Gipuzkoako udalerrietan, herrientzat egokituriko autokontsumorako baratza ekologikoen gune publikoen sarea da.

Baratza eremu hauen sustatzaileak KUTXA EKO GUNEA alde batetik eta lekuan lekuko Udalak dira.

Sare honetan egoteak honakoa eskaintzen du:

1. FASEAN

- Proiektua eta sarearen informazioa
- Baratze Parketarako jasangarritasunarekin lotutako irizpideak eta Udalari lagundu proiektuan txertatzen.
- Baratze Parkeko diseinurako laguntza teknikoa
- Hitzarmena sinatzea Udalarekin eta honen bidez diru laguntza bideratu **(7375,2 €ko diru laguntza aurreikusten da)**



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Araudi eredua
- Lursailak esleitzeko irizpide desberdinak

2.FASEAN

- Obra hasiera eta bukaerako ikuskaritza
- Lurraren ikuskaritza eta aholkularitza.
- Baratze Parke sarreran jarriko den Sareko panelaren edukiak, diseinua eta exekuzioa.
- Proiektua herritarrei aurkeztu.
- Baratzakideen Elkarteak gauzatzeko ereduak.
- Herriko Baratze Parkeko erabiltzaileei "nekazaritza iraunkor baterako lehen pausoak" ikastaroa Ekoguneak doanik eman.
- Baratze Parkeak eskatzen dituen mantenu lanen identifikaziorako laguntza.
- Ekoguneko "Funtzionamendu Gida" eskaini Udalari, eredu gisa.
- Baratzte Parkearen inaugurazioa antolatzen lagundu.

3 FASEAN

- Udalak eta Baratzekideen Elkarteak Baratze Parke Sareko bileratan parte hartzeko aukera (urtean bi): urteko plangintzari buruz informazioa, sarearen zerbitzuak hobetzeko proposamenak, informazio trukaketa...

- Baratzaren ikuskaritza azpiegiturak eta baratzaren egoera aztertuz (9aldiz/urtea), txostena bidaliz Udalari eta Elkarteari.
- Aholkularitza zuzena baratzakideei.
- Furgobaratza kontratatzeak aukera, aipatutako azken bi lanak eginez gain, landare ekologiko eta baratzetako produktu ekologikoen salmenta Baratze Parke bertan eginez, ordutegi egokienetan.
- Bellotaren erremintak, merkatu prezioarenkin alderatuz, %35^a merkeago.
- Ekitaldi-pack-ak: gai baten inguruko tailer praktikoa+haurrentzako ekimena+azoka...jai giroan.
- Baratze parketara egokitutako aseguroa.
- Baratze Parketara egokitutako formazio zerbitzua, prezio murriztuetan (tailer motzak, ikastaroak...)
- Konposta egina eta egituratzailea, baratzetako hondakinekin konposta egiteko.
- Baratzetako lan zerbitzuak:material organikoa txikitu;lurren prestaketa-lanak, inguruko landaretzaren garbiketak...
- Baratze Parke Sareko webaren partaidetza:informazio eguneratua(sasoisasoikoa), foroa, aholkularitza zuzena...
- Auzolanak bultzatzeko aktibitateak.
- Ekoguneko baliabideak:ikasgelak, karpak, bilera gelak...
- Ekoguneko kanpainak herrian gauzatzeko erraztasunak

II. Udal Idazkariak egindako txostena, honako testuaren arabera:

AZTERKETA JURIDIKOA



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

1.- Udalaren eskumena

Toki-Administrazioaren Arrazionalizazioa eta Iraunkortasuna arautzen dituen abenduaren 27ko 27/2013 Legea indarrean sartu ondoren, aipatu Administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen eskuduntzen sistema aldatu egin zen. Zehazki, ondoko aldaketa hauek eragin zituen lege berriak:

- udal eskumenen sailkapena egitea: udalen eskumenen artean berezkoak, delegatuak, eta bestelakoak bereizi ditu lege berriak.
- udalen berezko eskumenen gaiak murriztu egin ditu
- udalen eskumenen egikaritzea ekonomia eta finantza jasangarritasunaren irizpideen menpe jarri ditu.

Era honetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua 2. atalari idazkera berria eman zion Arrazionalizazio lege honek, eta gai-zerrenda bat osatu zuen, non udalek berariazko eskumenak egikaritzeko bait zituzten. Gai hauen artean, 25.2 artikulua b) atalak eskumenak ematen dizkie udalei, hiri ingurumenaren arloan.

Halaber, Ingurumenaren eta Kontsumoaren arloetako legeria sektorialek, udalen eskumen hauek garatu eta arautzen dituzte. Era honetan, udalek protagonismo berezi bat dute, dagokien esparruan, ingurumenari buruzko informatzeko eta kontzientziazteko jarduerak antolatu eta sustatzeko garaian.

Azkenik, Legeria sektorialean xedaturikoa betetzearren, Eusko Jaurlaritzak onartu duen Euskal Autonomiaren Erkidegoko Udal Legearen Proiektuak, bere 17. artikuluan, besteak beste, ondoko eskumenak aurreikusten ditu udalentzat:

8) Ingurumenaren babesa eta garapen jasangarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea, hiriguneetan kutsadura akustikoa, argiaren kutsadura eta airearen kutsaduraren aurkako babesa barne hartuta

Xedapen hauek kontutan hartuta, Azkoitiko udalak eskumen osoa du ezarri nahi den proiektua sustatzeko, eta xede horren barruan Baratze Ekologikoen esleipena eta kudeaketa arautzen dituen Ordenantza onartzeko, dagokion izapidea burutu ondoren.

2.- Ordenantzaren izapidetzea

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedaturikoa ikusirik, Ordenantza honen izapidetzeak ondoko pausoak izango ditu:

- Hasierako onespena, Plenoari dagokiona, aipatu Legearen 22.2.d) artikuluan araututakoaren arabera.
- Informazio publikoa eta interesatuen entzunaldiko epea, 30 lanegunekoa, erreklamazio eta iradokizunak aurkez daitezen.
- Aurkezturiko alegazioak ebatzi eta Ordenantzaren behin betiko testua onartzea, udalbatza plenoari dagokiona.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Informazio publikoko epea iragan eta inolako erreklamaziorik ez balitz aurkeztuko, Ordenantza behin betikotzat onartua emango da.

3.- Organo eskuduna

Goian aipatu den moduan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, ordenantzen onespena udalbatza plenoaren eskumena da."

III. Kontu hartzaileak egindako azterketa ekonomikoa eta txostena

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

Azkoitiko Udaleko Ogasuna, Kontratazioa, Pertsonala eta Barne Antolaketako Batzorde Informatiboak irizpen hau aztertu zuen 2015eko martxoaren 12an egindako bilkuran, eta bozkatu zuen 2015eko martxoaren 17ko bilkuran, bozketaren emaitza ondorengoa izan zelarik:

Aldeko botoak: Urrategi Alberdi Garate, Esther Lizarralde Mendizabal, Jesus M^a Oteiza Carrasco, eta Ana Isabel Albizuri Azkarateaskasua

Abstentzioa: Mikel Zubizarreta Orbegozo.

Aurreko guztia kontuan izanda, kontratu honen organo eskuduna den Udalbatza Plenoari honako irizpen hau onartzea proposatu dio Ogasuna, Kontratazioa, Pertsonala eta Barne Antolakuntzako Batzorde Informatiboak:

IRIZPENA

LEHENA.- Azkoitiko Baratze Ekologikoen esleipen eta kudeaketa arautuko dituen Ordenantza erregulatzailerak hasieraz onartzea, diktamen honen eranskinean jasotzen den testuaren arabera.

BIGARRENA.- Ordenantza hau eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ahal ditzaten.

Udalbatza Plenoak aurkeztu diren erreklamazio eta iradokizunei erantzun eta espedienteari behin betiko onespena emango dio. Alegaziorik aurkezten ez bada, behin betikotzat onartutzat joko da eta dagokion iragarkia argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Azkoitiko Udalaren web orrian argitaratzea.

LAUGARRENA.- Lursail bakoitza erabiltzeagatik herritarrek ordaindu beharreko kanona ordenantza fiskaletan txertatzeko prozedura gauzatzea eta hau Kontu hartzaileari jakinaraztea.

Txosten honek bere ondorioak izan ditzan,

Azkoitian 2015eko martxoaren 23an

ERANSKINA

AZKOITIKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA
HASERKO ONARPENA JASO DUEN DOKUMENTUA	DOCUMENTO DE APROBACIÓN INICIAL
Azkoitiko Baratze Ekologikoen esleipen eta kudeaketarako Araudia.	Reglamento para la adjudicación y gestión de las huertas ecológicas de Azkoitia.
Azkoitiko Baratze Ekologikoen programa deitutakoa zoru eta uren erabileraren eta tokiko espezieak babesteko planifikazio eta kudeaketa da. Horrez gain, formazio eta ingurumen kontzientziatorako tresnere bada. Horretarako, Azkoitiko Udalak barazkigintza ekologikoa sustatu nahi du hezkuntzaren esparruan, praktika jasangarri egokirako baratzeak eta aisialdirako ortuak sortzeko lurrak prestatuz.	El programa de Huertas Ecológicas de Azkoitia se define como un medio para la formación y concienciación medioambiental, de planificación y gestión de los usos del suelo y del agua, y de conservación de especies autóctonas, con una horticultura ecológica en el ámbito educativo mediante la creación de unos huertos de buenas prácticas sostenibles, huertos de ocio.
Gero eta herritar gehiagok ekiten diote barazkigintzari, batik bat adinekoek; horretarako, Azkoitiarrek landuko dituzten baratze txikiak sustatuko dira; beti ere, familiaren kontsumorako produktuak lortzeko.	La horticultura de ocio constituye una pujante forma de ocupación de muchos habitantes urbanos, especialmente de los más mayores, por lo que se propone el fomento de los pequeños huertos para que los vecinos de Azkoitia obtengan productos destinados al consumo



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

	familiar.
Udalak ziurtatuko du, lursailak dauden heinean, Azkoitiar interesatu guztiek izango dutela programan parte hartzeko aukerarik, eta behin lursailak egokituta bertako zerbitzuak eskura izango dituztela.	El compromiso municipal pasa por facilitar el acceso al programa de todos los interesados, y a la disposición de los terreno que haya y al acceso a los servicios necesarios para el cultivo.
Erabiltzaileek errespetatu egin beharko dituzte ingurumen araudia eta araudi honek zehaztutakoa, erabilera komunitarioa delako.	Los usuarios deberán respetar la normativa ambiental y lo regulado por este reglamento porque se trata de un uso comunitario.
I. ATALA PRINTZIPIO OROKORRAK 1. artikulua. Araudiaren xedea. Araudi honen helburua da Azkoitiko Baratze Parkea osatzen duten lursailen erabilera eta aprobetxamendua arautzeko beharrezko diren baldintzak ezartzea, eta arautzea horiek esleitzeko prozedura, baratzeetako laborantza jarduera eta erabiltzaileen erantzukizuna.	TITULO I PRINCIPIOS GENERALES Artículo 1. Objeto del Reglamento El presente Reglamento regula las condiciones del uso, disfrute y aprovechamiento de las parcelas de Azkoitiko Baratze Parkea, y el procedimiento para la adjudicación de las mismas, la regulación de la actividad de cultivo de los huertos y la responsabilidad de los usuarios.
2. artikulua. Aplikazio eremua. Aplikazio eremu objektiboa: Azkoitiko Baratze Parkean kokatu diren lursail guztiak. Aplikazio eremu subjektiboa: Azkoitiko udalerrian erroldatuta dauden guztiak, esleipenerako Araudi honetako aurreikusitako baldintza guztiak betetzen baldin badituzte.	Artículo 2. Ámbito de aplicación. Ámbito objetivo de aplicación: Todos aquellos terrenos incluidos dentro de Azkoitiko Baratze Parkea. Ámbito subjetivo de aplicación: Todos los residentes de derecho y de hecho en el municipio de Azkoitia que cumplan los requisitos previstos en este Reglamento para su adjudicación.
3. artikulua. Definizioak.	Artículo 3. Definiciones.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

<p>a) Erabiltzailea: Adjudikazioa jaso duena edo lizentziaren titularra. Lagatzen den ondasuna erabiltzeko edo aprobetxatzeko eskubidea jasotzen duen pertsona fisikoa; hau da, baratze ekologikoaren lagapenaren onuraduna.</p> <p>b) Fruituak: Baratzearen erabileratik lortzen diren etekinak, hau da, lurraren landaketa eta lanketaren ondorioz lortutako elementuak, izan barazkiak, frutak, lekariak, e.a.</p> <p>c) Elementu komunak: Baratzeak dauden udal lursailari dagozkion berezko elementuak, jabe bati baino gehiagori edo denei baliagarri zaizkienak: Pasabideak, hesiak, hodiak, tangak, muga-piboteak. Era berean, elementu komuntzat jotzen dira laborantzarako lanabesak eta erabiltzaileen esku jartzen diren gainerako tresnak.</p> <p>e) Erantzukizuna: Baratzeetako erabiltzaile bakoitzak bere erantzukizuna du. Norbanako bakoitzak du erantzukizuna, erabiltzaile den lursailaren neurrian.</p> <p>f) Baratze ekologikoa: Norbanako batentzako lursaila. Horren arabera ezartzen da erabiltzaile bakoitzaren erabilera eta aprobetxamendu eskubidea, eta dagokion erantzukizuna.</p>	<p>a) Usuario: Adjudicatario o titular de la licencia. Persona física a favor de la cual, se constituye el derecho a usar y aprovechar el bien que se cede. A los efectos que aquí interesan, el beneficiario de la cesión sobre el huerto ecológico de ocio.</p> <p>b) Frutos: Rendimientos que se derivan del uso del huerto, esto es, los elementos que derivan de la siembra y tratamiento de la tierra, tales como verduras, frutas, hortalizas, etc.</p> <p>c) Elementos comunes: Son los elementos naturales o dispuestos en la parcela municipal donde se encuentran los huertos y que sirven a más de uno de los propietarios o a todos en común: Pasillos, vallados, tuberías, depósitos, pivotes de delimitación etc. Igualmente los aperos de labranza y herramientas que se ponen a disposición de los usuarios.</p> <p>e) Responsabilidad: Responsabilidad que recae sobre cada uno de los usuarios de los huertos, de forma individualizada y en relación con la porción de terreno de la que sea usuario.</p> <p>f) Huerta ecológica: Porción de terreno individualizada. Sobre la misma se constituye el derecho del usuario para el uso, disfrute y aprovechamiento.</p>
<p>g) Lursaila: Udal lur-eremua, baratze ekologikoak kokatzeko tokia, hain zuzen.</p> <p>h) Familia-unitatea: Etxebizitza berean izatez eta eskubidez elkarrekin bizi diren pertsonak: Ezkontideak edo izatezko bikotea (edo bikotekideetako bat alarguntza, banaketa edo dibortzioen kasuan) eta adin txikikoak diren seme-alabak, etxebizitza berean</p>	<p>g) Parcela: Terreno municipal donde están los huertos ecológicos de ocio.</p> <p>h) Unidad familiar: Personas que conviven de hecho y de derecho en una misma vivienda: Cónyuges o parejas de hecho (o uno de ellos en caso de viudedad, separación o divorcio) e hijos menores de edad que</p>



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

bizi direnak.	convivan en el mismo domicilio.
<p>4. artikulua. Baratze Parkeko erabiltzaileen ordezkaria.</p> <p>Behin betiko izaeraz esleipendunak diren pertsonen udaleko kudeaketa arduradunarekin harreman zuzena izango duten ordezkariak izendatu beharko dituzte baratze pareka osatzen duen eremu bakoitzean. Ordezkar horiek erabiltzaileen zalantzak, arazoak... jasoko dituzte.</p> <p>Halaber, erabiltzaileen betebeharra izango da, Azkoitiko Baratze Parkearen erabilera zuzena ziurtatzea eta gutxieneko mantenua egitea.</p> <p>Esleipendunek elkarre bat sortu beharko dute, eta Elkarre horren kide izango dira Azkoitiko Baratze Parkearen atal diren eremuetatik edozeinetan partzela esleituta dutenak.</p>	<p>Artículo 4. Representante de los usuarios de Baratze Parkea.</p> <p>Las personas adjudicatarias con carácter definitivo deberán asignar un representante por cada ámbito que integra el Azkoitiko Baratze Parkea para el contacto directo con el ayuntamiento. Estos portavoces se encargarán de recoger las dudas, problemas, etc. de los usuarios.</p> <p>Además, será obligación de los usuarios salvaguardar el correcto funcionamiento de Azkoitiko Baratze Parkea y realizar el mantenimiento mínimo.</p> <p>Los adjudicatarios deberán crear una Asociación y serán miembros del mismo todos los adjudicatarios que tengan adjudicado una parcela en cualquiera de los ámbitos condicionados a Azkoitiko Baratze Parkea.</p>
<p>5. artikulua. Lagapen epea.</p> <p>Lursailaren aprobetxamenduak edota erabilerak urtebeteko epea izango du; eta gehienez ere LAU urtera arte luzatu ahal izango da.</p> <p>Epea automatikoki luzatuko da aldeetako batek kontrakorik eskatu ez badu epea amaitu baino hilabete lehenago.</p> <p>Esleipendunak, lizentzia amaitu aurreko hilabetean, baratzea garbi utzi beharko du, hurrengo esleipendunak lantzeko moduan.</p>	<p>Artículo 5. Plazo de cesión.</p> <p>El aprovechamiento y/o uso del terreno se concederá por periodos anuales, siendo susceptible de prórroga hasta un máximo de CUATRO años.</p> <p>Las prórrogas se prorrogarán automáticamente si ninguna de las partes solicita lo contrario con un mes de antelación a la finalización.</p> <p>El adjudicatario deberá dejar, en el mes final del plazo de licencia, el huerto limpio y apto para ser cultivado por el siguiente adjudicatario.</p>
6. artikulua. Erabilerarako oinarri orokorrak.	Artículo 6. Principios generales de uso.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

<p>1. Kontserbazio eta mantenimendua: Aisialdirako baratze ekologikoen erabiltzailearen betekizun nagusia izango da lagatzen zaion lursaila egoki zaintzea eta mantentzea, hurrengo printzipioek zehazten duten moduan.</p> <p>2. Elkarrenganako errespetua instalazioak erabiltzerakoan: Aisialdirako baratze ekologikoen erabiltzaileek ezingo diete eragozpen, kalte edo minik eragin besteei.</p> <p>3. Saltzeko debekua: Baratzeen erabiltzaile guztiek debekatuta izango dute haietan lortutako produktuak saltzea.</p> <p>4. Autohornikuntza: Baratzetik lortutako fruituak familia-unitatearen kontsumorako izango dira. Ezingo da, inolaz ere, horietatik etekin ekonomikorik atera.</p> <p>5. Ingurumen prebentzioa: Baratzeen erabiltzaileek soilik nekazaritza ekologikorako produktuak erabiliko dituzte, eta ez dira erabiliko lurrari kalte larriak eragiten dizkieten produktuak: Ongarriak, fitosanitarioak. Era berean, ez dira erabiliko akuiferoak kutsa ditzaketen produktuak. Araudi honek zehaztutako guztia beteko da.</p>	<p>1. Conservación y mantenimiento: Será obligación principal del usuario de los huertos ecológicos de ocio, la adecuada conservación y mantenimiento del terreno que se le cede, según lo especificado en los siguientes principios.</p> <p>2. Respeto recíproco en el uso de las instalaciones: Toda persona que sea usuaria de un huerto ecológico de ocio, deberá evitar molestias, daños o perjuicios a las demás.</p> <p>3. No comerciabilidad: Los usuarios de los huertos tendrán prohibido comercializar los productos que obtengan de los mismos.</p> <p>4. Autoabastecimiento: Los frutos obtenidos de la siembra de los huertos, únicamente podrán ser objeto de consumo propio o de la unidad familiar, y no podrán destinarse a percibir rendimientos económicos.</p> <p>5. Prevención ambiental: Los usuarios de los huertos sólo podrán utilizar productos de agricultura ecológica y no podrán utilizar productos que provoquen deterioros sobre la tierra: Fertilizantes, fitosanitarios. Tampoco se podrán utilizar productos que puedan contaminar los acuíferos. Se acatará todo lo establecido por este reglamento.</p>
<p>7. artikulua. Legeria aplikagarria eta arautzea.</p> <p>1. Aisialdirako udal baratze horien erabilera, eremu publikoko ondasunen erabilera komun berezi gisa kalifikatu behar da, Tokiko Korporazioen Ondasunen Araudiaren 75.1.b) artikulua dioenari jarraiki; hori</p>	<p>Artículo 7. Régimen aplicable y regulación.</p> <p>1. El uso de estos huertos de ocio municipales, debe calificarse de uso común especial de bienes de dominio público, según establece el Art. 75.1.b) del Reglamento de Bienes de las Corporaciones Locales, por lo</p>



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

<p>dela eta, lizentzia lortu beharko da. Lizentzia kopurua mugatua izango da; hortaz, lizitazio bidez esleitu beharko da baratze ekologikoen ustiapenerako erabilera-baimena eskatzaile guztien artean.</p> <p>2. Beraz, eremu publikoko ondasunak erabiltzeko baimena izanik, informazio publikorako epe bat ezarriko da, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen arabera.</p> <p>3. Aisialdirako baratze ekologikoen esleipenari, jabetzari eta erabilerari aplikatuko zaien legeria araudi honetan aurreikusitakoa izango da.</p> <p>4. Izaera subsidiarioan aplikatuko dira 33/2003 Legean, azaroaren 3koan (Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa) jasotako arauak.</p> <p>Udalak baimenaren beharra eta baldintza berak mantenduko ditu helburu horretarako lortu dituen jabetza pribatuko lurretan ere.</p>	<p>que deberá someterse a licencia, y dado que el número de licencias es limitado, la autorización de uso para la explotación de las huertas ecológicas deberá adjudicarse mediante licitación entre todos los solicitantes.</p> <p>2. Por tanto, por tratarse de una autorización para la utilización de bienes de dominio público se establecerá un período de información pública, en los términos previstos en el Artículo 86.1o de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.</p> <p>3. El régimen que se aplicará a la adjudicación, posesión y disfrute de los huertos ecológicos de ocio, será el previsto en la presente reglamento.</p> <p>4. Subsidiariamente, se aplicarán las normas contenidas en la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas y Reglamento de Bienes de las entidades locales.</p> <p>El Ayuntamiento mantendrá la necesidad de licencia y mantendrá las mismas condiciones en aquellos suelos de propiedad privada de haya obtenido para este mismo fin.</p>
<p>8. artikulua. Lagapen titulua.</p> <p>Lizentziak baratzea erabiltzeko ematen duen eskubidea pertsonala da eta besteri eskualdaezina, eta lagapenerako ezarritako baldintzak betetzen diren bitartean soilik balioko du. Erabiltzaileak ezingo ditu, inola ere, laga, zergapetu, edo debalde edo kostu bidez eman lizentziak emandako erabilera eskubideak. Eskubide horiek ezingo zaizkio beste inori eman inolako kasutan.</p>	<p>Artículo 8. Título de concesión.</p> <p>La licencia otorga un uso del huerto personal e intransferible, y solo producirá efectos mientras concurren las condiciones establecidas para su concesión. El usuario no podrá en ningún caso, ceder, gravar o disponer a título oneroso o gratuito de los derechos que se deriven de la utilización de uso autorizado por la licencia. Dichos derechos no podrán ser en ningún caso objeto de</p>



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

<p>Lagatako lizentziaren tituluak «prekario» izaera du, eta Udalak, interes publikoko kausa justifikatu batengatik, edozein unetan lizentzia kendu ahalko dio erabiltzaileari. Kasu horietan Udalak ez du inolako kalte-ordainik eman beharko.</p> <p>Interes publikoko kausa justifikatutzat hartuko da, besteak beste, programa honekin bateragarria den edo programa ordezkatzera datorren beste edozein udal programa onartzea. Era berean, Udalak edo beste edozein herri administrazioak beste edozein plan onartzea hiri edo azpiegituren garapenerako, baldin eta zuzkidura publikorik ezarri beharko balitz aisialdirako baratze ekologikoen kokapen berean. Kasu horietan, aipatutako plana onartzeak gizarte intereseko edo erabilera publikoko aitorpena izango du. Aitorpen horrek erabilerarentzako lizentziaren balioa indargabetuko du, eta emandako baimenen zati baten edo erabateko galera ekar lezakete, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe.</p> <p>Jabetza pribatuko lurrentzat aski izango da Udalaren eta jabetza pribatuaren arteko kontratuaren amaiera.</p>	<p>transmisión a terceros.</p> <p>El título de la licencia concedida será «a precario» para el usuario, pudiendo el Ayuntamiento por causas justificadas de interés público, revocar la licencia concedida en cualquier momento sin derecho a indemnización alguna por parte del Ayuntamiento.</p> <p>Serán causas justificadas de interés publico, la aprobación de cualquier programa municipal que sustituya o sea incompatible con el programa de huertos ecológicos de ocio. También, la aprobación de cualquier plan de desarrollo urbanístico o de infraestructura por parte del Ayuntamiento o cualesquiera otra administración pública, que conlleve la implantación de una dotación pública sobre los terrenos destinados a huertos ecológicos de ocio. En estos casos, la aprobación del referido Plan conllevará la declaración de utilidad pública o interés social, dejará sin vigencia las licencias para el uso de los terrenos demaniales, y pueden dar lugar a la pérdida total o parcial de la autorización concedida sin derecho a indemnización alguna.</p> <p>Para los terrenos de propiedad privada será suficiente la finalización del contrato entre el Ayuntamiento y la propiedad privada.</p>
<p>9. artikulua. Baratze-programaren funtzionamendurako argibideak.</p> <p>Aisialdirako baratze ekologikoen programaren jarduerentzako jarraibideak agindu ahal izango ditu alkateak: egituratzeko moduak, aholkuak, ordutegiak, laborantzamotak, e.a. Baratzeen erabiltzaileek</p>	<p>Artículo 9. Instrucciones de funcionamiento del programa de huertos.</p> <p>El Alcalde podrá dictar instrucciones sobre la actividad del programa de huertos ecológicos de ocio a fin de regular formas, horarios, tipos de cultivos etc. que serán de obligado cumplimiento por los</p>



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

<p>derrigorrez bete beharko dituzte jarraibide horiek guztiak, baita alkateak, zinegotzi delegatuak edo Udaleko arduradunek erabiltzaileei egiten dizkieten ahozko ohartarazpenak ere.</p>	<p>usuarios. También lo serán las indicaciones y órdenes verbales del alcalde, concejal o personal encargado del Ayuntamiento.</p>
<p style="text-align: center;">II. ATALA</p> <p style="text-align: center;">ESLEIPEN PROZEDURA</p> <p>10. artikulua. Onuradun izateko baldintzak.</p> <p>1. Aisialdirako baratze ekologikoen erabilera lizentzien onuradun izan ahalko dira Azkoitiko udalerrian erroldatuak dauden pertsonak. Ezinbestekoa izango da esleipenerako deialdia argitaratu aurretik gutxienez HIRU URTE erroldatua izatea.</p> <p>Horrez gain, honako baldintzak bete beharko dituzte:</p> <p>a) Azkoitiko Udalarekiko zerga-betebeharrak eta beste edozein motatakoak ordainduta izatea.</p> <p>b) Familia-unitate bereko kideren bat ez izatea beste baratze ekologiko baten erabiltzaile.</p> <p>c) Ez izatea nekazaritza-jarduerarako egokiak diren beste landa-lur baten jabe, ez edukitzea beste landa-lur baten gozamen eskubiderik, ezta maizterra izatea ere, ez erabiltzailea bera, ezta familia unitateko beste edozein kide ere.</p> <p>d) Araudi honetan zehaztutako ez-betetzereen batengatik zehapenen bat jaso ez izana.</p>	<p style="text-align: center;">TÍTULO II</p> <p style="text-align: center;">PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN</p> <p>Artículo 10. Requisitos para ser beneficiario.</p> <p>1. Podrán ser beneficiarios de las licencias de ocupación de los huertos ecológicos de ocio, las personas empadronadas en Azkoitia y que efectivamente residan en la localidad durante al menos TRES AÑOS antes de la publicación del anuncio de la convocatoria para la adjudicación.</p> <p>Además, deberán cumplir los siguientes requisitos:</p> <p>a) Estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias o de otra índole con el Ayuntamiento de Azkoitia.</p> <p>b) Que ningún miembro de una unidad familiar sea usuaria de otro huerto ecológico.</p> <p>c) No tener en propiedad, ni en usufructo o arrendamiento ni el solicitante ni ningún miembro de la unidad familiar terrenos de naturaleza rústica, que sean aptos para actividades agrícolas, en cualquier lugar.</p> <p>d) No haber sido sancionado por incumplimiento previsto en el presente reglamento.</p>
<p>11. artikulua. Lizentziak</p>	<p>Artículo 11. Procedimiento para</p>



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

esleitzeko prozedura.

1. Aisialdirako baratze ekologikoen erabilera ahalbidetzen duten lizentziak emateko konkurrentzia erregimena aplikatuko da, kontuan izanik lizentzia kopurua mugatua dela. Hala ere, ez zaie intereseko taldeei ezarriko hori, eta Udalak zenbait lur gorde ahal izango ditu erabilera espezifiko horretarako.

2. Prozedura hori ofizioz abiaraziko du Udalak, eskumena duen tokiko organoak dagokion ebazpena egin ondoren. Ebazpen horretan jasoko da aisialdirako baratze ekologikoen erabilera lizentzien lagapenari buruzko deialdia, bai baratze guztientzat, bai haien kopuru mugatu batentzat. Deialdi hori udaletxeko iragarki taulan argitaratu beharko da, baita Udalaren webgunean ere (www.azkoitia.net).

3. Baratze ekologikoen esleipenean interesa duten pertsonak eskabide bat aurkeztu beharko dute Udal Erregistroan, eredu ofizialean. Eskabideak zehaztutako dokumentuez gain, honako hauek ere aurkeztu beharko dira:

a) Nortasun txartela edo ordezkoko agiri legalaren fotokopia.

b) Aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak edo zinpeko aitorpena.

Halaber, Udalak ofizioz egiaztatuko du eskatzailea gutxienez hiru urte aurretik erroldatuta dagoela, arau-hausterik ez duela eta Udalarekiko zerga-betebeharrak edo beste edozein eratakoak bete dituela.

la concesión de licencias.

1. El procedimiento aplicable al otorgamiento de las licencias que habiliten para el uso de los huertos ecológicos de ocio será en régimen de concurrencia, dado el número limitado de las mismas. Sin embargo no será de aplicación a los grupos de interés, pudiendo el Ayuntamiento reservar determinados suelos para su utilización específica.

2. Dicho procedimiento se iniciará de oficio por el Ayuntamiento, previa resolución en tal sentido dictada por el órgano local competente, en la que se contendrá la convocatoria de concesión de licencias de ocupación de huertos ecológicos de ocio, bien referida a la totalidad de las huertas o a un número limitado de ellas. Dicha convocatoria será publicada en el tablón de edictos del Ayuntamiento, así como en la página web (www.azkoitia.net) del mismo.

3. La persona interesada en la adjudicación de los huertos ecológicos deberá presentar solicitud en el Registro municipal, con arreglo al modelo oficial. Además de la documentación requerida en el impreso, tendrán que presentar los siguientes:

a) Fotocopia del DNI o documento que legalmente le sustituya.

b) Documentos o declaración jurada de que cumple los requisitos establecidos en el artículo anterior.

El Ayuntamiento comprobará de oficio el empadronamiento y los tres años de antigüedad, la ausencia de infracciones y el estar al corriente de las obligaciones tributarias o de otra índole para con este Ayuntamiento.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

<p>12. artikulua. Eskumena eta prozedura.</p> <p>Alkatetzak ebatziko du lizentziak emateko prozedura.</p> <p>Gutxienez hamar egun naturaleko epea ezarriko da instantziak aurkezteko. Ondoren, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da iragarki-taulan.</p> <p>Interesdunek 5 egun naturaleko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko. Epe hori amaituta, eta jasotako erreklamazioak ebatzita, onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda dakarren ebazpena argitaratuko da. Lursailen kopurua baino eskaera gehiago aurkezten badira, jendaurreko zozketa egingo da, horretarako data behar bezala iragarritz.</p> <p>Ondoren, zozketa eginda hala badagokio, esleipenen eta erreserben behin betiko zerrendak argitaratuko dira, udaletxeko iragarki-taulan.</p>	<p>Artículo 12. Competencia y procedimiento.</p> <p>El procedimiento de concesión de licencias se resolverá por la Alcaldía.</p> <p>Se establecerá al menos un plazo de al menos diez días naturales para presentar instancias. A continuación se aprobará la lista provisional de admitidos y excluidos en el tablón de anuncios.</p> <p>Los interesados podrán presentar reclamaciones en el plazo máximo de cinco días naturales. Finalizado dicho plazo, y resueltas las reclamaciones recibidas, se dictará resolución que contenga la lista definitiva de admitidos y excluidos. Si hubiese más solicitudes que huertas a adjudicar, se efectuará un sorteo público, cuya fecha se anunciará oportunamente.</p> <p>A continuación, hecho el sorteo si hubiese sido necesario, se publicará la lista de adjudicación y lista de reserva definitiva, publicándose en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.</p>
<p>13. artikulua. Lizentziak esleitzea eta ordezkoen zerrenda.</p> <p>Lizentziak argi azaldu beharko ditu honakoak: xedea, baratzearen definizioa eta kokapena, erabiltzailearen eskubideak eta betebeharrak eta lizentziaren indarraldia.</p> <p>Zozketa egin ondoren baratzerik gabe gelditzen direnen izenak ordezkoen zerrenda batean jasoko dira, zozketan atera den hurrenkeran. Zerrenda hori erabiliko da bajak betetzeko; kasu horretan, dei egingo zaio hurrengo hautagaiari, aipatutako</p>	<p>Artículo 13. Adjudicación de licencias y lista de suplentes.</p> <p>La licencia que se conceda a los adjudicatarios, deberá especificar la finalidad, la definición y emplazamiento del huerto, los derechos y obligaciones del usuario y la vigencia de la licencia.</p> <p>Los que en el sorteo no hubiesen conseguido una licencia, se incluirán en una lista de suplentes. Esa lista será utilizada para cubrir bajas, realizándose un llamamiento al siguiente candidato según el orden de sorteo, dentro del periodo de vigencia de la licencia y del periodo fértil del</p>



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

<p>zerrendaren arabera, lizentziaren indarraldia eta laborantza epe emankorra kontuan hartuta.</p> <p>Baratzearen erabilera baimentzen duen lizentzia esleitu ondoren, esleipendunak urteko kuotaren kopurua autolikidatu beharko du eta fidantzari dagokion zenbatekoa ordaindu beharko du lizentzia jasotzeko. Esleipenerako epea igaro ondoren itzuliko da fidantza hori, denboraldi berrirako beste baratze baten esleipenduna ez bada.</p>	<p>cultivo.</p> <p>Una vez adjudicada la licencia, el adjudicatario deberá autoliquidar el importe de la cuota anual y depositar la fianza correspondiente establecida. La fianza se devolverá una vez transcurrido el plazo de adjudicación, si no es adjudicatario de otro huerto para esa nueva temporada.</p>
<p>14. artikulua. Zozketa irizpideak.</p> <p>Zozketa irizpideak dagokion lizitaziorako deialdian zehaztuko dira.</p>	<p>Artículo 14. Criterios de sorteo.</p> <p>Los criterios de sorteo se especificarán en la convocatoria para la licitación correspondiente.</p>
